

Emakumeen arteko elkarrizketak

AUSAZKO JOKOEKIKO ADIKZIOA GENERO-IKUSPEGITIK



ASOCIACIÓN ALAVESA
DE JUGADORES EN
REHABILITACIÓN
ERREHABILITAZIOAN DIREN
ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA

Euskadi, auzolana, bien común


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SALA

DEPARTAMENTO DE SALUD



Edizioa: 1. a 2021eko abendua

Internet: www.asajer.org

Egilea: ASAJER. Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkarte

Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

Itzulpena: HIGAN

Diseinua eta maquetazioa: Begoña Paino Ortuzar

Lege-Gordailua: XXX



Aurkezpena

Jokoaren Euskal Behatokiak jasotako datuek (Euskadiko Jokalarien Prebalentzia, Ohiturak eta Profilak, 2020) honako hau adierazten dute:

- Emakumeen % 13,9 adingabe zenean hasi zen jokatzeko (gizonen % 35,8ren aldean).
- Emakumeak, oro har, senideekin hasten dira jokatzeko, eta gizonak, berriz, lagunekin edo bakarrik.
- Emakumeek gehiago jokatzen dute tradizioagatik eta gizarte-ekimenei laguntzeagatik. Loteriak, ONCE eta bat-bateko loteriak bezalako jokoak nahiago dituzte.
- Sexua kontuan hartuz gero, emakumeen % 1,3k mendetasun-mailaren bat garatu du bere bizitzan (gizonen kasuan, % 2,9k).

Joko-nahasmendua duten pertsonen % 40 emakumeak dira gutxi gorabehera.

Laguntza bilatzen duten emakumeek ezaugarri hauek dituzte:

- Tratamendu-zentroetara joaten diren lagunen % 10 baino ez dira emakumeak.
- Kontrolik gabeko jokoak bingoa eta txanponjaleak izan ohi dira, bai aurrez aurre bai online. Ohikoagoa da aurrez aurreko jokia.
- Adinari dagokionez, beranduago hasten dira jokatzeko.
- Mendekotasun-nahasmenduaren progresioa azkarragoa da.
- Emakumeek maizago izan ohi dute afekziozko nahasmendu bat.
- Emakumeen kasuan, bakardadea eta arazo pertsonaletatik ihes egitea ausazko jokora eta mendekotasun-jokabide posible batera hurbiltzeko inguruabarrak dira.
- Emakume batek ausazko jokoarekiko mendekotasuna duenean, gehiago gaitzesten da bere jokabidea. Estigmatizazio soziala dago.
- Emakumeei, aurrekoa kontuan hartuta, gehiago kostatzen zaie beren arazoa onartzea, eta horrek atzeratu egiten du laguntza bilatzera hurbiltzea, bakarrik kasu gehienetan.

Emakumeentzako berariazko laguntza-taldea

ASAJER 1989. urteaz geroztik ari da eragindako pertsonak artatzen eta laguntza eskaintzen, bai banaka, bai taldeen bidez.

2017an jarri zen martxan emakumeentzako berariazko taldea. **Ausazko jokoekiko eta apustuekiko menpekotasuna duen topagune** gisa eratu zen. Bertan, jokoak dakartzan portaerez eta haren ondorioez hitz egiteaz gain, beraientzat garrantzitsuak diren hainbat gai jorratzen dira: autokontrol emozionala, osasun fisikoa eta gaixotasunak, osasun mentala, estigma, bakardadea, gizarte eta familia testuingurua, aisialdia eta denbora libre...

Faktore hauek lantzen dira:

- Arazoaren aurrean kontzientziatzea eta arazoarekiko erantzukizuna.
- Taldeak duen garrantzia berreskuratze-prozesuan laguntzeko.
- Berriz gaixotzea erraztu dezakeena balioestea eta kontuan hartzea, eta hori lantzea.
- Hazkunde pertsonala. Halaber, kontuan hartuko da taldeak laguntza-sare gisa duen garrantzia.

HELBURU OROKORRA

Laguntza, enpatia, errespetua eta suspertze-prozesuan lagunduko duen espazio bat eskaintzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Emakumeen artean sare bat sortzea, elkarri laguntzeko.
- Autoestimua indartzea, susperraldiaren funtsezko elementuetakoa baita.
- Besteak beste, bakardadearen gaia lantzea, elementu abiarazle gisa.
- Pentsamenduei, sentimenduei, emozioei eta jokabideari nola eragin diezaioketen hausnartzea.
- Aldaketan lagunduko duen ingurune positibo bat sortzen saiatzea.

Noiz biltzen da

Bilerak **hamabostean** behin egiten dira, **ostegunetan, 10:00etatik 12: 00etara**

Laguntza, informazioa behar baduzu edo zalantzaren bat argitu nahi baduzu



Deitu telefono honetara **945 140 468** (Ana)



Edo mezu bat bidali **grupoakelarre.asajer@gmail.com**